

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Toki, autonomia zein estatu mailako Polizietako agenteek suizidioei buruzko arreta eta prebentziorako formakuntza jaso dute

*"Suizidioaz mintza gaitezen" izenburuko jardunaldia egin da Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan*

Asteartea, 2018.eko azaroak 27

Foruzaingoa, Nafarroako Tokiko Polizia, Ertzaintza, Mossos d'Esquadra, Polizia Nazionala eta Guardia Zibilar atxikitako berrogeita hamar agente inguruk parte hartu dute Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan antolatutako jardunaldi batean, suizidioen arazoa poliziaren ikuspegitik aztertzeko xedez.

Agenteak suizidioaz sensibilizatu eta horri buruzko ezagutza handitzea izan da ekimenaren helburua, arreta eta prebentzioa bezalako ikuspegitik aztertuz. Horretarako, sei hitzaldi antolatu dira aditu hauen partaidetzaz: Jokabide Suizidei Aurrea Hartzeko Batzordeko kideak diren Alfonso Echávarri (Esperantzaren Telefonoko psikologoa), Adriana Goñi (Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua) eta Elena Aisa (Besarkada Elkarteko lehendakaria); Gabriel González kazetaria, irailean "Suizidioaz mintza gaitezen" izenburuko liburua aurkeztu zuena; eta Foruzaingoko nahiz Ertzaintzako agenteak, suizidioari buruzko ikerketa polizialaren arazoak eta krisi suiziden aurreko esku-hartze polizialak hizpide izan dituztenak.

Jardunaldiari bukaera eman dion mahainguruko partaideek ikuspuntuak eta esperientziak partekatu dituzte gizarte osoari eragiten dion arazo honi buruz, eta batez ere kolektibo polizialari jokabide suiziden prebentzioran eginkizun garrantzitsuagatik.

Nafarroako Gobernuak abian du [Jokabide Suizidei Aurrea Hartzeko eta Jarduteko Prokoloa](#), jokabide horiei atxikitako hilkortasun-tasa murriztu eta horien prebentzioa eta tratamendua hobetzea helburu duena, betiere Nafarroako gizarte, osasun, hezkuntza eta babes zibileko zerbitzuen arteko koordinazioaren bitartez eta bizirik dirautenei (senitartekoei) arreta eta tratamendu egokia bermatuz.



Agenteak jardunaldiako aurkezpen bat jarraitzen